

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUn KARROZARIAREN LAN POLTSA SORTZEKO HAUTATZE PROZESUAREN DEIALDIA.

- **3.FASEAREN - ELKARRIZKETA ETA ANALISI PERTSONALA – BEHIN-BETIKO EMAITZA.**
- **4.FASEAREN - MERITUEN BALORAZIOA - BEHIN-BETIKO EMAITZA.**
- **AZKEN KALIFIKAZIOA.**

3.Fasearen eta 4.Fasearen emaitzei buruzko alegazioak aurkezteko epea amaitu ondoren eta alegaziorik jaso ez denez, Hautatze Batzordeak,

ERABAKI DU

Lehenengo.- Karrozariaren Lan Poltsa osatzeko hautaketa prozesuaren ondorengo behin-betiko emaitzak argitaratzen dira:

- 3.FASEA - Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala: 1.ERANSKINA
- 4.FASEA - Merituen Balorazio: 2.ERANSKINA

Bigarren.- Karrozariaren Lan Poltsa osatzeko Deialdian onartu diren hautagaien azken kalifikazioa ematen da argitara. Hautaketa prozesuak dituen Fase bakoitzean lortutako kalifikazio partzialen batura da azken kalifikazio hori, lan-poltsako puntuazio-hurrenkera zehazten duena (3.ERANSKINA).

Hirugarren.- Lan Poltsa osatzeari eta kudeatzeari buruzko informazioa:

Gogora ekartzen da Karrozariaren Lan Poltsa osatzeko Deialdiko hamargarren oinarrian adierazitakoa:

Hautaketa Prozesua amaitutakoan, Hautaketa Batzordeak www.dbus.eus webgunean eta Donostiako Tranbia Konpainiaren iragarki taulan argitaratuko du Lan Poltsan onar daitezkeen hautagaien zerrenda.

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa hautaketa-prozesuko fase eta merezimenduen balorazio bakoitzean lortutako kalifikazio partzialen baturak osatuko du, eta horrek zehaztuko du lan-poltsaren lehentasun-ordena.

Puntuazioa berdina bada, lanpostuan ordezkaritza txikiena duen sexuak izango du lehentasuna. Berdinketak jarraitzen badu, euskara-maila handiena egiaztatuta duen hautagaiak izango du lehentasuna, hala badagokio.

Lan poltsan sartutako hautagaietako bati dagokion lanpostuan hasteko deia egiten zaionean, osasun azterketa egin beharko zaio, lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzea galaraziko dion gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzeko, bigarren oinarrian adierazi bezala. Lanpostuan hasi behar duen pertsona bakoitzari proba hauek egingo zaizkio, besteak beste: odol eta gernu analisiak, bihotz-biriketako miaketa (EKG), sabelaldeko miaketa, bizkarrezurraren azterketa, miaketa neurologikoa, ikusmenaren kontrola, entzumen azterketa eta anamnesia.

Hala ere, DTKk bere esku du beste proba gehigarri batzuk eskatzeko edo egiteko aukera.

Lan poltsan sartutako hautagai batek proba horiek gainditzen ez baditu eta lan poltsaren xede den lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen edozein kasu gertatzen bada, lan poltsatik kanpo geratuko da.

Karrozari lan poltsan dauden hautagaiek lanpostu hori betetzeko eskubidea izango dute langile behar ez iraunkorrak, premiazkoak eta geroraezinak daudenean, baldin eta salbuespenezko kasuak badira, eta betiere aldi baterako kontratuak egingo dira.

Hautagai batek lehenengo lan eskaintzari uko eginez gero, beste 2 aldiz deitu ahal izango diote. Beraz, hirugarren deiarri uko egiten badiu, lan poltsatik kanpo geldituko da.

Lan poltsa bi urterako izango da, behin betiko zerrendak argitaratzen diren egunetik aurrera kontatuta.

Hala ere, arrazoi operatiboengatik, gehienez beste bi urtez luza liteke lan poltsaren iraupena.

Nolanahi ere, lan poltsa berria osatzen denean, hau indargabetuta geldituko da. Hauxe da, lan poltsa hau ordezkatzeko DTKk hautaketa prozesu berria deitzen duenean, hautaketa prozesu berrian izena eman beharko dute oraingo lan poltsan dauden pertsonak.

Osatutako Lan Poltsan egoteagatik Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.U.n lanean hasten diren pertsonak 2 hilabeteko probaldia izango dute. Probaldiak irauten duen bitartean, langileak nahiz Enpresak probaldia bertan behera uzteko edo ez berritzeko erabakia hartu ahal izango dute aldez aurretik jakinarazi gabe, eta aldeetako bakar batek ere ez du horregatik kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango, lan egindako egunengatik dagokion ordainsaria besterik ez du jasoko langileak. Denbora horretan zehar enpresak langileen ebaluazio jarraitua egingo du. Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.U.k une bakoitzean indarrean dituen arauak beteko dituzte pertsonak, kontratazioaren eta lanaren balorazioaren alorretan, besteak beste, kasu bakoitzean edozein izanda ere kontratazio modalitatea.

Laugarren.- Bete beharreko baldintzari buruzko informazioa:

Gogora ekartzen da Karrozariaren Lan Poltsa osatzeko Deialdiko bigarren oinarrian adierazten den arabera, “D” motako **Gidabaimena izatea eta Gaitasun Profesionalaren Ziurtagiria (GPZ) izatea, laneratze datarako eskatzen direla.**

Bosgarren.- Donostiako Tranbia Konpainia, S.A. onargarriak diren hautagaiekin harremanetan jarriko da osasun azterketa egiteko, inkorporazioak egin ahala.

Prozesu honetan egiazkoa ez den informazioa aurkezten bada, automatikoki Lan Poltsatik kanpo utz liteke hautagaia.

Stua.: Langileak Hautatzeko Batzordea
Donostia, 2024ko maiatzak 31

1.ERANSKINA:

3 Fasearen behin-behineko emaitza - Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala.

IDENTIFIKAZIO KODEA	3. FASEAREN PUNTUAZIOA (gutxienez 12/20 puntu)
KA23-001	12,50
KA23-003	16,00
KA23-005	12,00
KA23-006	14,50

2.ERANSKINA

4.Fasearen behin-behineko emaitza - Merituen Balorazioa.

IDENTIFIKAZIO KODEA	EUSKARAREN EZAGUTZA	LAN-ESPERIENTZIA
KA23-001	5,00	8,40
KA23-003	5,00	10,00
KA23-005	5,00	3,54
KA23-006	5,00	10,00

3.ERANSKINA: Azken kalifikazioa.

IDENTIFIKAZIO KODEA	AZKEN KALIFIKAZIOA
KA23-001	93,58
KA23-003	101,57
KA23-005	79,28
KA23-006	97,53